

# liburujatu*n*

*iv. irakurketa joko*a



# irakurtzea

gustatzen  
zaizu?

BI PERTSONARENTZAKO AFARIA  
IRABAZTEA GUSTATUKO LITZAIZUKE?

Orduan... LIBURUJATUN bat zara!

Leioako Udalaren Kultura Sailak, Udal Liburutegiak eta Euskara Zerbitzuak, laugarren urtez irakurketaren inguruko joko bat proposatzen dizue!!

Irakurtzeak misterioz beteriko mundu anitzetara garamatza. Batzuk gustura sartzen dira bidaia horretan, baita irrikitan sartu ere; beste batzuei, ordea, izugarri kostatzen zaie letretako zubi hori zeharkatzea. Horregatik, liburuez gozatzeko eta irakurketaren alde ludikoa azpimarratzeko Liburu-jatun Irakurketa Jokoa kaleratzen dugu.



ekar<sup>®</sup>

  
**ARTAZA**  
JATETXEA

zelan

# partehartu

Proposatzen ditugun bost liburuak irakurri eta horien inguruan egingo ditugun galderei erantzun. Ondorengo liburu interesgarri haiei buruzko galderak honako foileto honetan topatuko dituzu (gogoratu martxoaren 27ra arte daukazula denbora):

- 1 Elvis hil zen urtean. Xabier Mendiguren
- 2 Ez duk erraza, konpail!. Koldo Izagirre
- 3 Belarraren ahoa. Harkaitz Cano
- 4 Eulien bazka. Hasier Etxeberria
- 5 Odolean neraman. Joan Mari Irigoien

Liburua irakurri duzuela jakiteko sei itaun egingo dizkizuegu. Galderek erantzun zehatz-zehatza izango dute, eta liburuan bertan topatuko duzuen informazioaz baliatu beharko duzue.

Bi kategoria daude: euskara eta gaztelania. Kategoria bakoitza bestearerikiko independentea da, beraz, batean edo bietan parte har daiteke. Jokoa 16 urtetik gorakoentzakoa da.

Otsailaren 2an liburuen inguruko galderak argitaratuko dira eta martxoaren 27an izango da liburu guztien erantzunak emateko azken eguna. Erantzunak Kultur Leioako Liburutegira astelehenetik

ostiralera, 9:00etatik 20:00etara, eraman daitezke edo liburutegia@leioa.net helbidera bidali Liburuja-tun jokorako dela zehaztuz, zuen datu guztiak jarritz (izena, abizena, helbidea, udalerria, telefonoa, NAN-a, jaiotze data). Erantzuna emailez bidaltzen baduzue liburutegitik konfirmazio erantzun bat jaso beharko duzue.

Liburuen galderak liburutegian eskura daitezke otsailetik aurrera.

bere web orrialdean:

[www.bibliotecaspublicas.es/leioa/](http://www.bibliotecaspublicas.es/leioa/)

Kultur Leioako web orrialdean:

[www.kulturleioa.net](http://www.kulturleioa.net)

KULTUR LEIOA

Jose Ramon Aketxe plaza 11 – 2 eta 3

48940 LEIOA

94 6072574



# sariak

2009ko apirilaren 24an, ostirala, arratsaldeko 20:00etan sari banaketa izango da Kultur Leioan.

Sariren bat lortzeko, liburuak irakurri direla demostratu baino ez da egin behar; horretarako liburu-jatunak liburu bakoitzeko hiru galderari erantzun behar die ondo. Kategoria bakoitzetik baldintza hori betetzen duten guztiak sari hauen zozketan sartuko dira:

- Bi pertsonarentzako afaria Artaza Jatetxean.
- ELKAR Megadendetarako 50 euroko 6 bale indibidual.

Oharra: sariak jasotzeko zozketara etorri beharko da. Sariiduna, edo bere ordezkariaren bat, zozketara ez badator sari hori berriro ere zozketatuko da.

Zozketatutako sariez gain, bertan parte hartutako guztiei oparitxo bat emango zaie (beti eta liburu bakoitzeko hiru galdera erantzun badituzte) eta horren ostean lunch goxoa eskainiko da.

## IRAKURLE ELEBIDUN SARI BEREZIA

Bi kategoriatan parte hartzen duten guztiei, beti eta liburu bakoitzean puntuazioaren erdia gutxienez lortzen badute, Irakurle Elebidun Sari Berezia emango zaie. Saria Kultur Leioako Lagun Txartela da, hau da, 2009 urte osoan Kultur Lagunek dituzten abantaila eta deskontu guztiak izango dituzte.



# egutegia

AZAROA, ABENDUA ETA URTARRILA  
liburuak irakurri  
OTSAILAREN 2tik MARTXOAREN 27ra  
galderak erantzun eta liburutegian utzi  
APIRILAREN 24a  
sari banaketa

Irakurri liburuak, galdera hauei erantzun eta entrega itzazu:  
Animatu eta bihurtu zaitez LIBURUJATUN!!

Antolatzaileek oinarri hauetatik sor daitezkeen zalantza, interpretazio edo ezustekoak argituko dituzte, eta euren irizpidea nagusi izango da gainerakoen aldean. Joko honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahi du.

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazi nahi dizugu inprimaki honetan adieraziko dituzun datuak Kultur Aretoko Lehiaketetako partaideen datu-fitxategi batean erregistratuko direla; horren helburua deialdia izan duen lehiaketako hautagaiak ezagutzea da; informazioa Leioako Udalaren Kultur Arloko langile eta arduradunek jasoko dute eta fitxategiaren arduraduna Leioako Udala izango da (Elexalde Auzoa, 1).



# galderak

## ELVIS HIL ZEN URTEAN

Xabier Mendiguren

- 1 Zein urtetan hil zen Elvis?
- 2 Zergatik ez zen "Etxe"ren (liburua lehen pertsonan kontatzen diguna) familia inora joaten udan?
- 3 Zergatik ez zen Edu urte horretan Galiziara joan?
- 4 Jendez lepo egongo zen piszinara joan beharrean, nora jotzen dute hiru lagunek freskatzera eta igeri egitera?
- 5 Zer da Etxek Eduren bainugelaren zintzilik aurkitzen duena?
- 6 Nortaz maitemintzen da Etxe?

## EZ DUK ERRRAZA, KONPAI!

Koldo Izagirre

- 1 Koldo, eleberririk honetako protagonista, Cubara doa B. bisitatzera. Ba al dakizu zer daramakion opari modura?
- 2 Aurkituko al du B. La Habanan dagoenean?
- 3 Koldok ere zafrara joateko asmoa burutzen du, baina horretarako bertoko baten laguntza beharko du. Zein koloretakoa zen zirkunstantziak behartutako lagun berri hau?
- 4 Zeri deitzen zioten Jose Martiren kozkorra?
- 5 Benetakoak al ziren Juan de Begoña eta bere aitxorra?
- 6 Camagueyn aurkituko dituzte Zafrara doazen kamioiak eta Koldo beraietara igoteko asmoa hartzen du. Lortuko al du?



## ODOLEAN NERAMAN

Joan Mari Irigoien

- 1 Amona Sinforosa oso jenio txarrekoa da, eta Eneko ere odol berekoa (eta berokoa) dela igertzen duenez, gauzak birritan pentsatu ditzan metodo bat erakusten dio. Ba al dakizu zein?
- 2 Ba al dakizu tabernara sarri joan eta Enekoren-gan marka itxiko zuen jaun erretiratuaren lehen-go lanbidea?
- 3 Zein zen Enekoren aitaren ametsa?
- 4 Enekok konpromezu bako erlazioak baino ez ditu nahi emakumeekin, baina Adela azkenean pentsio bat lortzen du. Zelan?
- 5 F.C. Barcelonak Eneko fitxatu zuenean nortzuek lagundu zioten bertan girotzen?
- 6 Eleberri honetan agertzen zaizkigun futbola eta futbolarien mundua benetan gertatzen denaren islada dela pentsatzen al duzu?

## BELARRAREN AHOA

Harkaitz Cano

- 1 Europa osoa eskuratu eta Itsaso Atlantikoa zeharkatu eta gero, non lurreratzen da Nazien armada?
- 2 Nor daroa Hitlerrek preso bere ontziko sotoan?
- 3 Olivier Legrand, hasieran minetan betelan, gerorago zamari eta azkenik Ameriketara joatea deliberatzen duen pertsonaia da. Baina non esaltzen da Amerikara joateko?
- 4 "Komediante" izeneko pertsonaiak, urdin koloreko karpeta darama beti aldean. Ba al dakizu zer gordetzen zuen barnean?
- 5 Nondik alde egin zuen Katek, "Komeriantea" laguntzen duen pertsonaiak?
- 6 Zer gertatzen da eskuizkribuarekin azkenik?

## EULIEN BAZKA

Hasier Etxeberria

- 1 Zer aurkitu zion Aldaba doktoreak Damian Arrutiri eztarrian?
- 2 Nahiko bilduma berezia zeukan Damianek. Ba al dakizu zerena?
- 3 Espeleologo batzuk, emakumezko gorpu zati-tua aurkitzen dute leize batean. Gorpuak ez du ezta bururik, ezta eskurik ere, baina hala ere, Damianek gorpua identifikatzen dau. Nola?
- 4 Jose Ramon Ispizuak, bere aspaldiko laguna, mesede bat eskatzen dio Damiani arrantzan doazen domekan. Zein?
- 5 Damianek Jaione Bankutxako zuzendariarekin agertzen den argazki bat jasotzen du. Nor zen, igorleaz aparte, argazki hori zeukala zekien bakarra?
- 6 Nor izan zen argazki hori bidali ziona?

